INDUSTRIA IRAULTZA (1.zatia)

Bete hurrengo hutsuneak informazioa ateratzen liburutik:

Industria Iraultza honako hau da: ekoizpeneko prozesuetan masiboki makinak erabiltzen hastearen ondorioz sortu ziren aldaketa ekonomiko eta sozial garrantzitsuen multzoa. Aldaketa horiek **(1)**…….. hasi ziren, XVIII. mendearen bigarren erdian.

Industria Iraultzan bi fase bereiz daitezke: Lehen Industria Iraultza, **(2)**……. urtearen inguruan hasi zena, eta Bigarren Industria Iraultza, **(3)**……. urtearen inguruan hasi zena. Industria Iraultza aldaketa handiak eragin zituen nekazaritzan eta **(4)**…….

XVIII. mendera arte, Britainia Handiko biztanleriak hazkunde motela izan zuen; izan ere, jaiotza-tasa altua zen, baina heriotza-tasa ere bai. Hazkunde demografikoarekin, nekazaritzako eta industriako produktuen **(5)**……. gora egin zuen, eta fabrika berrietan lan egiteko langile **(6)**…….. zeuden.

Mende horren bigarren erdian, hazkunde demografiko handi eta jarraitu bat hasi zen. Arrazoi nagusia izan zen heriotza-tasak **(7)**……. egin zuela eta jaiotza-tasak **(8)**…… izaten jarraitu zuela.

Elikagaien eskariak gora egitearen ondorioz, berrikuntzak aplikatu ziren nekazaritzan eta abeltzaintzan. Nekazaritzarako teknikak **(9)**…… ziren, adibidez, XVIII. mendearen amaiera aldera, zurezko goldearen ordez **(10)**…….. …….. erabiltzen hasi ziren.

Bete hurrengo hutsuneak hitz egoki bakoitza bere tokian jartzen, batzuk sobera daude:

(11)……. mendearen bigarren erdian hazkunde **(12)**…….. handia egon zen **(13)**…… . Arrazoi nagusiak izan ziren **(14)**…….. behera egin zuela, eta jaiotza-tasak **(15)**…….. izaten jarraitu zuela. Heriotza-tasak behera egin zuen izurri bubonikoaren **(16)**…….. behera egin zutelako, eta hobekuntzak egon zirelako bai higienean bai eta **(17)**…….. ere, eta, horiei esker, herritarrek indar handiagoa zuten **(18)**…….. aurre egiteko. Azkenik, zenbait hobekuntza izan ziren **(19)**……..; adibidez, **(20)**…….. aurkako txertoa asmatu zen, eta **(21)** …….. berriak eraiki ziren.

elikaduran	Ingalaterran	heriotza-tasak	osasungintzan	altua	XIX.
baztangaren	elgorriaren	izurriteak	ospitale	gaixotasunei	epidemiek
udalak	kultura	demografiko	Frantzian	XVIII.	

LIVEWORKSHEETS